

ataria

2020-07-24 • 1.279. zenbakia
107.6 fm • www.ataria.eus

Ezin festagune izan





AURKIBIDEA

Iritzia Izarne Olano **3**

Asteko Gaia

Festarik gabeko uda **4-11**

Elkarrizketa

Kepa Fernandez de Larrinoa **13-15**

Hitzez Hitz Ramon Olasagasti **16-17**

Begirada Grafikoa

Ibon Odriozola **19**

Iritzia Onintza Lasa **20**

Iritzia Ainhoa Artolazabal **21**

Agenda **24-25**

Elkarrizketa Ion Altuna **26-28**



Azaleko irudia
Sasoi eraikuntzak

ataria

URTEKO HARPIDETZA KUOTA: 82€

ATARIAk ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

bai erabakia eta
lana eskatzen

Bikam

ARGITARATZAILEA: Tolosaldeko Komunikazio Taldea, SM **LEGE GORDAILUA:** SS-1323-2013 **TELEFONOA:** 943 65 56 95
KOORDINATZAILEA: Rebeka Calvo Gonzalez **KUDEATZAILEA:** Iban Urdapilleta Alkizalete **BEZERO ARRETA:** 943 30 43 46
WEBGUNEA: ataria.eus **POSTA ELEKTRONIKOA:** ataria@ataria.eus **IRRATIA:** 943 69 80 38 • 687 410 033 • 107.6 FM
PUBLIZITATEA: 661 678 818 • publi@ataria.eus

Tolosaldeko Komunikazio Taldea, SM:



Tolosaldeko gizarte eragileak

TOLOSALDEKO ATARIA diruz laguntzen duten erakundeak:

Udalak: Abaltzisketa, Aduna, Alegia, Alkiza, Albiztur, Altoz, Amasa-Villabona, Amezketza, Anoeta, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidania-Goiatz, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Larraul, Leaburu-Txarama, Lizartza, Orendain, Orexa, Tolosa eta Zizurkil.



Gipuzkoako
Foru Aldundia



IZARNE OLANO
KALAKARIA

Parrandak

Eta, halako batean, iritsi zaigu uda. Udaberria salto batean pasa eta, Inauterietako moztarroak jasotzetik udako arropak janztera pasa gara. Uda hasi bezalaxe hasi dira gazteak parranda gosez, itxaropentsu, azken hilabeteetan egin ezin ditugunak egiteko asmoz. Badakigu, ordea, uda hau ez dela beti bezalakoa izango. Ez parrandarik, ez urrutiko bidaiarik, ezta terrazan lasai egoterik ere.

Deseskalatzea azkarregi joan da, fase batetik bestera egoera horretara ohitzeko denborarik gabe. Pedagogiarik gabe. Norbanakoaren esku utzi dute ardura eta badirudi ez dugula ikasi, inguruan positiboak agertu behar izan baitute kalean maskara erabat erabiltzen hasteko.

Dena den, sarritan pentsatzen dut gazteen egoera ez dela batere erraza, parrandarako eta udan firin-farran ibiltzeko gogo aise ezinda baitabiltza. Festaz festa ibiltzeko sasoi betean daude, goizalderainoko parrandak egiteko gogoz. Zein ondo egongo liritekeen gaur bezalako egun batez Villabonako santioetan, zenbat barre egingo luketen Aste Nagusian, zenbat dantza Leitzako festetan eta zenbat fandango Ibañan...

Baina, aurten, ezingo dugu horrelakorik egin. Gaztetxoek, agian, saiatuko dira non edo han gogo hori asetzen, baina ulertu beharko dute aurten ezin dela. Ez dakit jabetzen ote diren arduraga-

bekeria horrek ekarri ditzakeen ondorioez, ez baita kasualitatea oraingo agerraldiak gazteen artean gertatzea. Zintzoa izanda, niri COVID-19a ez den beste arrazoiren batek galaraziko lidake orain parrandaz parranda ibiltzeak, baina, ikasi beharko

**Ez dakit jabetzen ote diren
arduragabekeria horrek
ekarri ditzakeen ondorioez,
ez baita kasualitatea
oraingo agerraldiak
gazteen artean gertatzea**

dute aurten ez dela horrelakorik komeni. Ez dela parrandarako garaia.

Gogoratu daitezela beraien guraso eta aiton-amonekin. Ikastolara edo parkera joaterik ez eta lagunak ikusi gabe egon diren haur guztiekin. Bakar-dadean heriotzak harrapatu dituztenekin, eta beraien familiekin. Gaixorik egon diren eta daudenekin. Kutsatzeak ekiditeko ixten ari diren tabernekin eta bertako komertzio txikiarekin. Egin dezatela, behintzat, maite dutenengatik. Etorriko dira eta garai hobeak.

ZIURGABETASUNA, GIDA ETA ARAU

Jendarteko arlo guztietara hedatu da koronabirusa. Kutsatzeen kopuruak gora egitea, osasuna zaintzeko segurtasun neurri bereziak eta aparteko arauak dira, besteak beste, eskualdeko udalek udako egitarauak antolatzeko garaian kontuan hartu beharreko faktore berriak



Aitor Arroyo Askarai

Hasiera batean osasun krisia zela zirudiena jendarteko esparru guztietara zabaldu da eta udako festak ez dira salbuespena. Egoera hobetzen ari zela pentsatuta, jaiak antolatzeke asmoa zuten hainbat herritan, baina azken asteetan kutsatze kopuruek gora egin dutela ikusita, egitaraua bertan behera uztea erabaki dute hainbatek.

Uztaileko azken egunekin batera iristen dira Altzoko festak. Aurten, ordea, COVID-19aren eraginez sortutako testuinguruan eta herritarren osasuna arriskuan ez jartze aldera, bertan behera geratu

dira San Inazio jaiak. Dena dela, garai bitxi hauetan ere, Uda Giro egitaraua antolatu dute Altzoko Udaleko Festa eta Kultura batzordeak Talde Feministarekin batera. Udako hilabeteetako prestatu dituzte ekintzak, tartean, San Inazio eguneko bertso jaialdia. Andoni Egaña, Uxue Alberdi, Aitor Mendiluze, Julio Soto, Nerea Elustondo eta Eli Pagola bertsolariak ariko dira Manu Olano gai jartzailearen gidaritzapean.

Egitarauaosatzen duten ekintza guztietan segurtasun neurriak egongo dira. Kasurako, beharrezkoa izango da gonbidapenak edukitzea. Altzoko udal txean egongo dira eskuragarri, pertsona bakoitzak



gehienez bi gonbidapen hartu ahal izango ditu, eta herritarrek lehentasuna edukiko dutela azaldu du herriko udalak.

Larraulen, ohituraz, San Esteban eta San Bartolome egunak ospatzen dituzte. Festarik ez dela izango iragarri zuten, baina hainbat kultur ekitaldi antolatu dituzte. San Esteban egunean, esaterako, bertso saioa izango dute. Maialen Lujanbio, Onintza Enbeita, Iker Zubeldia eta Haritz Mujika ariko dira jendaurrean. Osasun neurriak ere ez dira faltako, eser-

«Horrela bizitzen ere ikasi egin beharko dugu. Pauso bat aurrera eman orduko, atzera bi egiten»

AGURTZANE ZELAIA

lekuen arteko segurtasun distantzia, uneoro maskarak erabiltzea eta eskuak garbitzea, kasu. Festak bertan behera geratu izanaren albisteak herritarrek penaz hartu dutela azaldu du Larraulgo Udaleko Kultur zinegotziak; baina erabaki zuzena dela eta guztiek arduraz jokatzeko espero duela ere gehitu du.

Eskualdeko beste hainbat herritan ere ez da festarik izango. Berastegin, esaterako, ez dute jairik ospatuko eta aparteko kultur ekitaldirik ere ez dute egingo. Albizturren ere aurten ez da Andre Mari jairik eta Gazte egunik ospatuko. Ama Birjin eguna ospatzeko ohitura dute Orendainen, baina aurrekoen moduan, hurrengo urtera arte itxarotea erabaki dute hauek

ere. Koronabirusagatik ez balitz, Gaztelun ere festa edukiko lukete abuztuaren 15ean. Baina egoeraren berezitasuna medio, hemen ere bertan behera geratu da Ama Birjin egunaren ospakizuna. Horren ordez, herritarrentzat kultur ekitaldiren bat antolatuko dutela aipatu du herriko udal ordezkariak.

Hari beretik tiraka Baliarrainen ere egun bera ospatuko lukete. Aurten,

ordea, prestakuntza guztiak erdibidean utzi behar izan dituzte. Aparteko ekintzei dagokienez, momentuz, ez dute ezer antolatuko; egoera apur bat argitu artean, behintzat. Egoera antzekoa dute Amezetan, San Bartolome festak ospatzekoak ziren abutzu amaieran, baina bertan behera utzi dituzte eta oraindik ez dute erabaki aparteko egitaraurik antolatuko duten. Bidania-Goiatzen ere ez dute jairik edukiko aurtengo udan. Hainbat kultur ekitaldi prestatzeko asmoa zuten, zinema emanaldiak kasu, baina kutsatze kasuek gora egitean bertan behera uztea erabaki zuten. Agurtzane Zelaia alkateak egoera zaila dela onartu du: «Horrela bizitzen ere ikasi egin beharko dugu. Pauso bat aurrera eman orduko, atzera bi egingen. Ziurgabetasunaren aurrean, zaila da zerbait antolatzea».

Berrobin antzekoa da egoera. Jaiak abutzuaren amaieran ospatzeko ohitura dute eta, denbora tarte baliatuz, erabakia ahalik eta gehien atzeratzen ari da festa batzordea. Zerbait ospatzekotan, ezberdina izango dela aurreratu du herriko alkateak eta hainbat aldaketa egingo dituztela ere esan du, besteak beste, egitaraua kultur ekitaldiekin osatzea, gauez ekin-tzarik ez antolatzea eta egitaraua hiru egunetan antolatzea -joan den urtean bost eguneko egitaraua osatu zuten-.

Ikaztegietak ere ez du festarik antolatuko. Udaberrian antolatzen duten azoka berezia bertan behera geratu zen. Egoera hobera egingen ari zelakoan, azoka eta udako festak batera ospatzeko asmoa zuten, baina kutsatzeen kopuruak gora egitean guztia atzeratzea erabaki dute. San Lorentzo egunean, berriz, herritarrei arduraz jokatzeko eskatu die udalak, eta edozein ospakizun alternatibo egitea debekatu dute. Festak egiteko gordeta zuten aurrekontuarekin udazkenean kultur ekitaldiak egiteko asmoa adierazi du udaleko Manex Saez de Egilaz zinegotziak: «Jaietan egitea pentsatzen genituen ekin-

Festak ospatzeko
gordeta zuten
aurrekontuarekin
udazkenean
kultur ekitaldiak
egin nahi dituzte
Ikaztegietan

tzak geroago egingo ditugu; edo, behintzat, udazkenean beste urte batzuetan baino kultur ekitaldi gehiago egin nahi ditugu».

San Joan surik ez zuten egin Hernialden, eta bide beretik, ez dute Andra Mari egunik ere ospatuko. Aparteko kultur ekintzarik ez dutela antolatuko azaldu du Aitor Zubillaga herriko alkateak. Baina egoerak hobera egingen

badu, urrian erakusketa bat antolatzeko asmoa dutela esan du. Santa Kruz apaizaren ingurukoa izango litzateke mostra, eta besteak beste, garaiko tresnak eta jantziak erakutsiko litzuke.

Ibarra ez da salbuespena izango. Aurten ez da abutzu festarik izango herrian, baina dena ondo bidean, irailean berriro biltzekoa da herriko festa batzordea eta ezohiko jaiak antolatu ala ez erabakiko dute bertan. Bitartean, aparteko kultur ekitaldirik ez





Bertso saioak izango dira San Inazio eta San Esteban egunak ospatzeko modu bakarrenetakoak. **ATARIA**

dutela antolatuko azaldu du udaleko Nagore Zubillaga Kultur zinegotziak.

Herritarren osasuna zaintzeko joerari jarraiki, Zizurkilen ere ez da jairik izango. Bi festa batzordeek argitaratu zuten ohar bateratuan kultur ekitaldiak egiteko aukera aztertzen ari zirela esan zuten, eta nahiz eta momentuz, ez duten ezer prestatu, egoerak hobera egiten duenean guztia pasa dela ospatzeko jai bat egiteko asmoa azaldu dute.

Adunan ere ez da Ama Birjin eguneko ospakizunik izango. Osasun krisia medio, bertan behera geratu da osatuta zuten egitarau osoa. Dena dela, egoerari aurre egiteko asmoz, akordioa egindako artistekin konpromisoa mantendu eta ekintzak geroago egitea adostu dute. Urtero, Kultur Astea antolatzen dute azaroan eta hainbat ekitaldi hor txertatu nahi dituztela aipatu du udaleko ordezkariak, baina guztia momentuko egoeraren arabera izango dela ere nabarmendu du.

OSTIRALA UZTAILAK 31

ALTZO

SAN INAZIO EGUNA

Goiz eresia herriko txistulariekin.

19:00. Bertso jaialdia. Antoni Egaña, Uxue Alberdi, Aitor Mendiluze, Julio Soto, Nerea Elustondo eta Eli Pagola. Gai jartzailea: Manu Olano.

ASTELEHENA ABUZTUAK 3

LARRAUL

SAN ESTEBAN EGUNA

18:30. Bertso saioa Maialen Lujanbio, Onintza Enbeita, Iker Zubeldia eta Haritz Mujikarekin. Herriko plazan, eta eguraldi txarra eginez gero frontoian.

OHARRA. Udako behin behineko agenda egitaraua **24-25 orrietan**. Aldizkaria inprentara bidaltzerako indarrean zegoen eskualdeko agenda. Jakina denez COVID-19ak unean uneko aldaketak sortu ditzake.

«Jendea parte hartu gabe geratzea ez zaigu egokia iruditzen»

NAGORE ZUBILLAGA

IBARRAKO KULTUR ZINEGOTZIA

A. Arroyo Askarai

Nagore Zubillaga Ibarako Udaleko Kultur zinegotzia da eta jaiak bertan behera geratu direla azaldu du. Festak antolatzen dituen batzordeko kide da beste hainbat herri eragilerekin batera, eta bere hitzetan, «segurtasuna mantentzeko zailtasunak» direla-eta geratuko dira bertan behera San Bartolome jaiak. Batzordea osatzen duten eragile ia guztiek bat egin dute hartutako erabakiarekin eta albisteak herrian onarpena eduki duela adierazi du Zubillagak. Irailean berriro bilduko da Festa batzordea eta, momentuko egoeraren arabera, aparteko ekintzarik antolatzea posible den erabakiko dute.

Zergatik hartu duzue festak bertan behera uzteko erabakia?

Erabaki hori uztailaren hasieran hartu genuen. Ibarrran festak beti festa batzordeak antolatzen ditu, udalarekin elkarlanean. Hainbat arrazoi zirela-eta hartu genuen erabakia. Alde batetik segurtasun neurriak bermatzea zaila izango zelako; eta bestetik, egun, indarrean dagoen arautegiak festak apur bat

esklusibo bihurtzen dituelako. Segurtasun distantzia eta edukiera murrizketekin, pertsona gutxi batzuk bakarrik har zezaketen parte antolatutako ekintzetan eta horrek, pena handia ematen zigun. Herriko festak herriak osotasunean parte hartzeko dira, eta jendea horretatik kanpo geratzea ez zitzaigun bidezkoa iruditzen.

Bertan behera geratu dira? Beranduago ospatzeko asmoa duzue?

Momentuz bertan behera geratu dira. Baina iraileko lehen astean beste festa batzorde bat egingo dugu, eta, egoeraren arabera, beste zerbait egitea ea posible den pentsatuko dugu. Momentuz, tradizioz festak ospatzen diren egunetan ez da ezer egingo, ezta



ekintza sinbolikorik ere. Udazkenera begira zerbait egitea posible den ala ez iraileko bilera horretan erabakiko da.

Udan aparteko ekintzarik egingo duzue?

Oraingoz, ez daukagu ezer antolatuta. Egia da zerbaitekin proban hasteko asmoa bagenuela, baina azken egun hauetako joera ikusita... Momentuz dena geldirik geratu da. Ez dakit zerbait antolatzeko gai izango ote garen. Momentu honetan, behintzat, ez dago ezer aurreikusita.

Eskualde mailako erabaki baten beharra ikusten duzu?

Guztionez lagungarria izan daitekeela pentsatzen dut. Antzeko egoeran gaude denok; egokia litzake

erabaki orokor bat edukitzea eta guztiok antzeko jokatzea. Baina egia da gauza asko izan direla korrika eta presaka erabaki beharrekoak, eta ez dugu tartarik eduki guztiok eseri eta erabaki komun bat adosteko.

Zer esango zenioke festak antolatzeko erabaki duen herri bati?

Ulertzen dut bakoitzak hartzen dituen erabakiak intentzio onenarekin hartutakoak direla. Inork ez daki hartutako erabakiek ondo funtzionatu ote duten, zehatz-mehatz jakitea ezinezkoa da. Baina ziur nago festak aurrera eramatea erabaki duten herriek dituzten segurtasun neurri guztiak hartuko dituztela.

Zeintzuk dira Ibarako Udalak hartu dituen segurtasun neurriak?

Kanpaina ezberdinak egin ditugu segurtasuna bermatzeko aldera. Momentu batean zabor ontziak ireki egin genituen, kutsatze maila jaitsi zenean itxi egin genituen, baina aurreko astean kutsatze kopuruek gora egin dutenean berriz ere irekitzea erabaki dugu. Udal eraikinetan segurtasun protokoloak ditugu osasuna bermatzeko eta... arau orokorrak jarraitzen ari gara.

Zer gertatuko da festak antolatzeko aurrekontuarekin?

Foru funtsaren murrizketa zela eta, aurrekontuan aldaketak egin behar izan genituen. Hortaz, jada diru bat murriztu genion festak antolatzeko zegoen kopuruari. Aurrekontuak, orokorrean, murriztu egin ditugu sail guztietan; batean izan ezik: gizarte zerbitzuetan. Gizarte zerbitzuak mantentzea lehentasuna izan da.

Festetarako gordeta dagoen dirua hor dago, momentuz, ukitu gabe; irailean zer egin erabaki arte behintzat. Ez dela erabiliko ikusiko balitz, aurretik, leku askotik kendu behar izan dugu, beraz, badago non gastatu.



«Ez dugu jende pilaketak sortzea nahi, baina kulturari bultzada ematea ere garrantzitsua da»

NEREA ELOLA

ALTZOKO FESTA BATZORDEKO ZINEGOTZIA

A. Arroyo Askarai

Nerea Elola, Altzoko Udaleko Festa batzordeko zinegotzia, udako kultur ekintzen egitarauari buruz aritu da. Segurtasun neurriak kontuan hartuta antolatu dituzte ekintzak eta neurrietako batzuk zerrendatu ditu: «Derrigorrezkoa izango da maskara uneoro ja-

rrita eramatea eta publiko guztia eserita egongo da». Ikuskizunetara joateko gonbidapenak udaletxean hartu beharko dira eta herritarrek lehentasuna edukiko dute.

Festetako egitaraua da ala kultur ekitaldiak dira?

Festak antolatzen hasita geunden. Baina ezin direnez egin, kultur aldetik lantzea erabaki genuen. Festak izaten diren egun zehatz horietan zerbait antolatu dugu, hutsik ez uzteagatik, baina ez da festa egitarau bat.

Zertan ezberdintzen da egitarau hau festa egitarau batetik?

Ekintzak uda guztian zehar antolatzen direla. Nahiz eta festak izaten diren egunetan ekintzaren bat antolatu dugun, udako hilabeteetan dago banatuta egitaraua. Errazena ezer ez egitea da, baina kultura ere mugitu behar da; kaltetuena dagoen sektoreetako bat delako. Ez dugu jende pilaketarik sortzea nahi; beraz, festarik ezin da egin, baina kulturari bultzada ematea ere garrantzitsua da.

Zergatik da garrantzitsua kultur ekitaldiak mantentzea?

Gehienbat, kultura kaltetuen dagoen sektoreetako bat delako. Hori kontuan hartuta, arrazoi nagusietako bat kultura mugiaraztea izan da, eta momentu honetan indarrean dauden arauen arabera, gauzak antolatzea. Errazena ezer ez antolatzea litzateke. Egia da, horrela jende pilaketak sortzea saihesten duzu, baina, ez dakit... Ahal den heinean bizitza normal apur bat egiten saiatzea ere garrantzitsua dela iruditzen zait. Herrian bizi pixka bat sortzeko ere egin dugu; gauzak ez ditugu antolatu kanpotik jendea etortzeko.

Ekintza guztiak gaua iritsi aurretik amaitzen dira.

Gazteak zein helduak parranda aukera ikusten duten momentuan, hara joaten dira. Hamabietatik aurrera zerbait antolatzen baduzu, jada festa moduko zerbait bihur daiteke; eta hori da ekidin nahi duguna. Bide horretatik, demagun, bertso saio bat egin nahi dugula. Egokiena arratsaldeko zortzietan hasi eta hamarretarako bukatuta egotea litzateke, eta amai-

tzean, etxera; ez dago horren segidako ezer. Jendeak parranda egiteko aitzakia edukitzea saihestu nahi dugu. Ekintzak antolatu bai, baina arduraz.

Kanpotik jendea etortzeko aukera aurreikusten duzu?

Guk argi daukagu, eta argi utzi nahi dugu, antolatu ditugun ekintzak Altzoko herritarrentzat direla. Momentu honetan jende pilaketak ekidin egin behar dira. Ez dugu publizitaterik egingo, ez dugulako inguruko jendea etortzea nahi, egoerak hala eskatzen duelako. Egingo ditugun kultur ekitaldi guztietara joateko gonbidapenak beharko dira –udaletxean hartu beharko dira, gehienez bi gonbidapen pertsonako-. Ekintzaren eguna gerturatu eta gonbidapenak soberan badaude, orduan irekiko da agian; baina lehenik herritarrei eskainiko zaizkie. Herriari begira antolatu dugu egitaraua.

Herri guztiek jokabide bera eduki beharko lukete?

Festa egin edo ez erabakitzeko, inguruko udaletara deika aritu nintzen haiek zer egin behar zuten jakiteko helburuarekin. Agian ez du ematen, baina herri bakoitzeko errealitatea ezberdina da. Altzon, esaterako, zerbait antolatzen badugu eta gaueko hamarretarako bukatzen bada, kito, dena amaitu da. Baina, kasurako, Alegia batean gauza bera antolatuta, amaitzen denean jendeak agian poteoan jarraituko du, aukera hori badagoelako, herriaren ezaugarriek ematen dutelako. Beraz, herri bakoitzak ikusi behar du zein ezaugarri dituen: parrandarako aukerarik ematen ote duen, herritarrek nola mugitzen diren... Eta horren arabera, erabakiak hartu.

Nik bakoitzak berea egitea egokiagoa ikusten dut. Udal bakoitzak ezagutzen duelako bere herria ondoren. Komunikazioa edukitzea ona da, noski. Elkarren berri jakitea garrantzitsua da, eta hobeto antolatzen gara ondokoek zer egingo duten jakinda.



BERROBIN

BIZITZEN ARI GAREN GARAIETARAKO ETXEBIZITZA EZIN HOBEAK

TERRAZA ZORAGARRIAK, 2 ETA 3 LOGELAKO ETXEBIZITZAK, HERRI ERDIAN. BISTA EDERRAK. LASAIA ETA EGUZKITSUA

OTEGUI ERAIKUNTZAK
BIZKAI KALEA 2, BEHEA - TOLOSA
TEL. 943 67 21 72 - 608 77 28 01
otegui@oteguieraikuntzak.com



«Modu artifizial batean bizi gara, eta pozik bizi garela erakutsi behar dugu»

KEPA FERNANDEZ DE LARRINOA
ANTROPOLOGOA

Alkizan bizi den Kepa Fernandez de Larrinoa antropologok garbi du, festa egiteko beste bide batzuk aurkitzera eraman gaituela koronabirusak. Baina festaren zentzua «galduta» dagoela dio, «orain, festa noiznahi egiten da».

Eneritz Maiz Etxarri

Udak festa usaina izan ohi du. Herriko festak bereziak izan ohi dira, eta uda festaz festa ibiltzeko aitzakia ere bada askorentzat. Aurtengoak ez du festatik asko izango, ordea. Kepa Fernandez de Larrinoa (Bilbo, 1958) festaren funtsaz eta zentzuaz aritu da hizketan.

IRAGARKI LABURRAK

LAN ESKAINTZAK

Zerbitzaria. Zerbitzari bat behar da. Interesatuak deitu 647 446 363 telefono zenbakira.

Zure iragarki laburra argitaratzeko deitu **943 65 56 95** zenbakira edo idatzi **ataria@ataria.eus** helbidera. Iragarki guztiak **irgarkilaburrak.eus**-en.

Zein garrantzia dute festek pertsonentzat?

Lehenik eta behin festa zer den kontestualizatu behar harko litzateke. Zer den festa bat, zertarako balio duen, zer-nolako eragina duen pertsonengan, bizitzan eta kolektiboan bizitzetan. Festak ospakizunak dira, hau da, zerbait ospatzen da. Ospakizunen logika zer den ezagutu behar dugu.

Zer hartu behar da, beraz, kontuan?

Ospakizunak ulertu ahal izateko, adituok, bi ziklo uler-tu behar ditugu; bi bizitza ziklo mota. Hor daudela ja-betu behar gara, eta hor mugitzen garela. Lehendabi-zikoa da, pertsonaren beraren bizitza zikloa. Alegia, hor badago jaiotza, koskortzen gara, gaztetu egiten gara, heldu egiten gara eta gero zahartu. Bizitzan ze-har momentu ezberdinak ditugu, eta horiek pasatzen ditugu ospakizunetan. Jaiotzen garenetik, garai ba-koitzean ospakizun ezberdinak bizitzen ditugu hil-tzen garen arte. Beste sistema naturaren bizitzaren zi-kloa da. Urtaroak ditugu, eta horietan festa ezberdi-nak daude. Festa horiek naturaren bizitzaren zikloa erakusten digute. Neguko festak modu batekoak dira, eta udaberrikoak bestelakoak.

Pertsona eta natura uztartzen dira?

Bi bizitza ziklo horiek uztartuta ditugu. Banaka edo uztartuta erakusteko errituak agertzen dira; basa erri-tuak. Erlijioa duten errituetan bataioa, ezkontza eta hileta daude, edota gaztaroan jaunartzea. Gazte tal-dean basa errituak luzeagoak dira, bestelako sistema bat da. Ez da agintarien sistemaren barrukoa, hau da,

agintari zibilen edo erlijiosoaren sistemaren barrukoa, baizik eta, kanpoko. Iraultzaileagoa da gazteriaren ospakizuna normalean.

Zer esan nahi duzu horrekin?

Ospakizunak basa errituak dira. Sartu-irten errituak dira. Estatus bat uzten dugu eta beste batean sartzen gara. Urtaro bat uzten dugu eta beste batean sartzen gara. Hor ari gara bizitzaren zikloa markatzen. Jaio, sortu eta hil. Hori da norberaren bizitza biologikoa, naturaren, hau da, eguzki eta ilargi sistemaren mugi-menduan. Hor emozioak dramatizatzen ditugu, senti-menduak adierazten ditugu. Esaterako, zein festa den eta norekin egiten dugun, poza adierazten dugu, edo tristura izango da nabarmentzen dena. Gazte festa batean bagaude, edo ehorzketa batean edo ezkontza batean, sentimenduak bestelakoak dira. Poza, tristu-ra, gazi-gozoa, benetako sentimenduak ditugu; bai sentimendu pertsonalak edo sentimendu kolektiboak. Sentimendu eta emozio horiek pertsonalak eta kolek-tiboak dira, eta festa horiek kanalizatzen dituzte. Ho-rretarako dira festa horiek; norberak bere barruan, edo, talde edo kolektibo batek multzotasun horretan. Sentimendu eta emozioez gain, talde horretako kidea zein den eta zein ez den ere adierazten dugu.

Horrek zer esan nahi du?

Ospakizunetan gizarte loturak erakusten, agertzen, dramatizatzen edo antzetzten direla esan nahi du. Gi-zarte loturak, oro har, baina baita gizarte taldeen jos-kerak ere; eta gizarte talde txikien joskerak erakusten

hilberriak • urteurrenak • eskertzak

Txikia: 110€ • Atarikideentzat: 55€
Handia: 160€ • Atarikideentzat: 80€
Eskertza: 60€ • Atarikideentzat: 30€

Eskelak • ataria@ataria.eus • Tel: 943 65 56 95
Astelehenetik asteazkenera 18:30ak arte hartzen ditugu. Ostegunetan 11:30ak arte hartzen ditugu.



baditugu, noski, ajeak ere bai. Eta agian amildegiak zeintzuk diren ere ezkututzen ditugu. Pertsonen arteko zubiak agertzen dira, baina hutsuneak ere bai.

Orain, ordea, kanpoko faktore bat dugu: Koronabirusa. Horrek eraginik badu?

Arazo bat dugu. Kanpoko elementu bat sartu zaigu, eta ikusi besterik ez dago zer gertatzen ari zaigun herriko festa edo hilabete hauetako ospakizunetan. Herriko festak bakarrik ez, begiratu behar dugu adinekoak zahar etxeetan hil direla, bakarrik hil direla, ehorzketarik ez dela izan, familiako kiderik ez dela izan, gorpuk edo hautsak beranduago jasoak izan direla,... Komunikazio eza ere hor dago, eta komunikazioa izan bada, teknologia berrien bidez izan da. Ez da komunikazio fisikorik izan. Dramatizatze behar horretan kinesia bat erabili dugu, hau da, gorputz lengoaia. Gorputz lengoaia berezia, ezagutua, kodifikatua; eta, sinbolika, ikur lengoaia ere erabili dugu ospakizun horietan. Berdin dio ospakizuna zein motatakoa den. Naturaren zikloari lotuta dagoen edo pertsonari lotua, edo biei lotua den. Kinesia sinbolika horretan une eta guneak daude. Eguneako une eta gune horiek ospakizunetan transformatzen ditugu, eta horretarako kinesia eta sinbolika bereziak ditugu. Uneak bereziak

dira eta espazioak ere bai. Ospakizunetan eguneroko lengoaia transformatzen da.

Orain, sozializatzeko arazoak ditugu, ordea.

Bai. Bat-batean sistema horrek ez du balio. Ikusten dugu sistema hori erabiliz gero, kutsatzen garela eta arriskuan jartzen garela. Geure burua jartzen dugu arriskuan eta gure aldamenekoak ere bai. Alegia, gure taldea ere arriskuan jartzen dugu: senideak, lagunak, aldamenekoak, beraz, festetan parte hartu behar izanez gero, talde garela erakustea baino izan liteke taldeari kaltea ekarriko diogula. Orduan, kontziente baldin bazara, mesfidantza sortzen da. Beraz, ospakizunaren funtzioa modu batez ulertu dugu orain arte, eta orain konturatzen gara funtzio hori ez dela betetzen. Alegia, taldeari berari kalte eragin diezaiokegu. Hori ez gertatzeko, gure taldea defendatu edo maitatu nahi badugu, beste modu batez egin behar dugu, eta festa birformulatu behar dugu. Ospakizuna beste modu batez egin behar dugu, eta berrasmatze horrek behar luke bestelako kinesia; bestelako sinbolika, eta bestelako gorputz lengoaia. Hori da gaur egunean dugun erroka, eta bat-batean etorri zaigu. Orain arte erabili dugun sistema kutsatuta dago, eta beste bat asmatu behar dugu. Elkar kide garela esateko, izateko eta erakusteko horretan koronabirusak infektatu du gure sistema. Besarkadak, musuak, elkarren ondoan dantza egitea, elkar ukitu, ikustea,... ez da posible.

Festak belaunaldiz belaunaldi pasa dira, baina gizartea gero eta indibidualagoa da. Honek areagotu dezake?

Ematen du komunitatean bizi garela, festetan jende asko biltzen delako, baina, festa horiek oso indibidualki bizi garela ezkututzen dute. Gizarte indibidualista batean bizi gara, eta gizartea oso kontsumista da. Batik bat kontsumo festak dira. Eta norberaren zikloari eta naturari ez diogu jarraitzen. Festak egiten dira noiznahi. Lehen jendeak festa bere herrian egiten zuen, edo bisita eginez senideen herrian. Orain jendea herriz herri mugitzen da astebururo. Modu artifizial batean bizi gara, eta pozik bizi garela erakutsi behar dugu. Festaren zentzua galduta dago. Funtza hor dago: sentimendu bat adieraztea eta talde bat garela esatea, eta horrek hor jarraitzen du.



**RAMON
OLASAGASTI**
GALTZAUNDIKO
KIDEA

Kontraesanak

Ohikoa duen zorroztasunez, zirtoan zarta eta zartakoan hausnarketa eraginez, zutabe ederra eskaini zigun uztailaren 16an Andoni Egañak *Berrian*: *Kontraesanak*. Aipatzen zuen nola «guztiok ditugun gure kontraesanak», eta hori aitortuta, zuribide erraza ematen diegun gure barneko arrakalei. Eta oroitarazten zuen hauteskunde gaueko *Euskal Telebistako* saio berezietan, *ETB2*k %26ko ikusle kuota izan zuela EAEn, eta *ETB1*ekoak, berriz, %2,7koa, noiz eta Eusko Legebiltzarra sekula baino abertzalegoa den honetan. «Hori baino kontraesan handiagorik!», deitoratzen zuen Egañak.

Atera ditzala nork bere ondorioak. Aditzaile onak aski omen ditu bi hitz.

Izan ere, bizi dugun egoeraren ispi-lu bide da *ETB*. Halako itxurakerian edo, nahi bada, kontraesanean bizi gara: gurean *ETB1* ez da lehena, *ETB2* baizik. Eta bat esaten duenak euskara esan nahi du, eta 2 esaten duenak gaztelania. Hauteskunde gaueko saioarekin gertatu zen moduan, gu *Ur Handitan* erdi itoan gabiltza beti, eta *Conquis*-en jarraitzai-

leak, Karibeko itsaso turkesetan, audientziaren aparretan.

Euskararen gaira etorrita, lehen ere maiz samar azaleratu izan zaigu arrangura: euskaraz dakitenen erdiak egingo balu, euskaraz dakitenen erdiaren laurdenak erosiko balu *Berria*, irakurriko balitu euskarazko liburuak, kontsumituko balitu euskal produktuak... Eta zer nahi duzue esatea, beti zornetan dagoen arrangura horri ez diot sendabiderik ikusten, ezpada gure burua sosegatzeko hartzen dugun pildora lasaigarri hori: «Guztiok ditugu gure kontraesanak».

Izan ere, inor zahagi-zakutzat hartu gabe, gu geu gara *Conquis* ikusten dugunak, *ETB1*eko albistegiei

muzin egiten diogunak, tabernan eta kioskoan «periodikua» (alegia DV edo Correo) erosten eta leitzen dugunak, firin-faran etengabe euskaratik gaztelaniara lerratzen garenak, hitzetik hortzera gaztelaniazko makuluak sartzen ditugunak, publizitate-kanpaina eta administrazioko dokumentu guztiak, txio asko eta asko, gaztelaniaz pentsatu eta ekoizten ditugunak, gero, onenean, euskarara ekartzeko...

Euskara maite dugu, baina erraza-

Halako
itxurakerian edo,
nahi bada,
kontraesanean
bizi gara:
gurean 'ETB1' ez
da lehena,
'ETB2' baizik



goa zaigu gaztelaniaz irakurtzea, errazago komunikatzen gara erdaraz... «No se», guztiok ditugu gure kontraesanak.

Aurtengo urtea ere kontraesan erabatekoan doa, COVID-19a dela eta ez dela. Udaberria pikutara joan zitzaigun, gero bi hilabeteren buruan kilkerak baino alaiago atera ginen eguzkitara, kri-kri-kri, gorputzari lizunak kentzera, eta orain auskalo, udako oporraldia ez ote dugun berriro ere gure kilker-zuloetan pasa beharko. Sanjoanak joan zitzaizkigun, «ez-sanferminak» deiturikoak ere bai («entzierroan» harrapatu ez gintuenean), Mari Jaiak jai du aurten, baita eskualdeko herri txikietako festa guztiek ere... Taberna batzuk behin-behinean itxita ditugu, beste batzuk ordutegi murriztuarekin... Udak zer ekarriko, batek daki.

Agintarien aginduak ere kontraesanen segida amaigabea dira: lehen eskularruak nahitaezkoak ziren, gero ez, hauteskunderen aurretik maskara gomendagarria zen, gaur derrigorrezkoa... Zer esan hura egin, halaxe gabiltza. Urrats bat aurrera eta bi atzera.

Urtea doan moduan, udazkena nola etorriko den auskalo. Pauso honetan, beldurra ere ematen du azaroaren 20tik abenduaren 4ra bitarteko Euskaraldiak ez ote gaituen itxialdian harrapatuko... Ahobizi eta Belarriprest guztiak lau pareten artean gatibu. Horregatik, zer gerta ere, uda honetan, zuek ez dakit baina ni Euskaraldiari ekitera noa. Maskararekin bada ere ahobizi. Euskaraldia iristen denean edo amaitzen denean, ez dezadan esan «guztiok ditugu gure kontraesanak».



ATARIKIDEAK

BOTILA BAT

6 EURO

BI BOTILA

10 EURO

BESTEAK

8 EURO

14 EURO

BOTILAK EROSTEKO 943 65 56 95 TELEFONORA DEITU
BEHAR DA BULEGORA JOAN BAINO LEHENAGO.



Ibon Odriozola @ibon_odriozola_design
TRANKIL



**ONINTZA LASA
ARTEAGA
TOLOSARRA**

Udararik gabeko urtea

E guzki zalea izanik, udara da nire urtarorik gogokoena; olgetarako aitzakia ederra ematen baitu bero-giroak. Egun luze eta lasaien urtaro nagia; plan anitz eta berriak egiteko nahi adina egun dituen. Txikitan nonbait entzun edo irakurri nuen izan omen zela udarik gabeko urte bat; pentsatu ere izan nuen amestu egin nuela, ha-

lakorik! Zer eta txanda-pasa udari!

Ondoren jakin nuen egia zela 1816ko udan, Tanbora sumendiaren leherketak askaturiko gas, errauts eta abarren ondorioz urte ezberdin, zail bat bizi izan zela.

Aurten izango da uda, baina berezia, ezohikoa. Normaltasun *ez normal* honetan, udara ulertzeko modu berria.

Garai hartan eguraldi txarrak etxe inguruan gelditzera gonbidatzen zuen moduan, oraingoan urrutira gabe ibiltzeko gomendioek ere hainbat ohitura aldaraziko ditu. XIX. mendeko *Udaezuda* hartan izan zen gauza onik ere, ekoizpen eta sormenerako iturri izan baitzen; esaterako, Frankenstein pertsonaia orduantxe sortu zuen Shelly andreak.

Azkenaldian maiz datorkit burura kontua hura eta artistak bere ekoizpen lanetan murgilduta ikusten ditut; artista ez zirenak bestelako zereginetan.

Errealitate berdinak ondorio ezberdin asko izan ditzake, baikor zein ezkor, txuri-beltz zein koloretsu; interpretazio kontua da askotan.

Martxotik hona bizitako egoerak dagoeneko izan dute isla arlo ezberdinetan: lan eta ikasketa ohiturak, ohitura sozialak, abesti, liburu, etab. Norberak balora beza!

Datozen asteotan ere berrikuntzarako aukera handiak izango ditugu. Izan ere, zuhurtziazko neurri-mugak tarteko, asko urrutiratu gabe aisialdirako zer edo zer asmatu beharko dugu.

Eta horretan geundela, hauteskundeak sartu dituzte. Udan. Plaf! Bakea eta lasaitasun *ez normala* are gehiago arrarotzera.

Tira! Hori ere pasa dugu eta orain, emaitzei dagokionean «zaharrak berri» suertatu da itxuraz. Beste alde batetik, ordea, irakurketa sakonak egiteko adina gertaera eta ondorio izan da hauteskunde berberetan.

Hasiko gara udazken *eznormalean* (Noiz bihurtzen da *eznormala*, normal?) egunerokotasunari erantzuten. Hiritarrok moldagarritasuna erakutsi dugu egoera berrietara egokitzeke. Politikari «zahar-berriek» irakurketa horiek egiteko aldartea izango ote duten, ordea, ikusteke dago.

Bitartean, ondo pasa!

**[...] 1816ko
udan, Tanbora
sumendiaren
leherketak
askaturiko gas,
errauts eta
abarren
ondorioz
urte ezberdin,
zail bat
bizi izan zen**

Tolosako bidegorria: eroso eta segurua?



**AINHOA
ARTOLAZABAL
IRAKASLEA**

Tolosan bidegorria egin zenetik, bizikletaren erabilerak gora egin du nabarmen, eta adin guztietako erabiltzaileak ikus daitezke herria zeharkatzen. Batzuek lane-ra joateko edota erosketak egiteko, eta beste batzuek eskolara joateko edo norberaren gozamenerako erabiltzen dute bidegorria. Mugikortasunean hobetu dugu. Asko, gainera!

Baina Tolosako bidegorri-sareak hainbat arazo ematen ditu oraindik.

Lehenengoa: herria zeharkatzen duen bidegorria ez dago erabat komunikatua; Tolosako erdigunearekin eta hainbat auzorekin lotzea falta da. Esate baterako, Zumarditik Alde Zaharrera datorren bidegorria

dulariek partekatzen dutelako esparrua. Mota horretako bizikleta-bideetan arazorik ez sortzeko, ezinbestekoa da bai oinezkoek baita bizikletan gabiltzanok ere arauak errespetatzea. Tamalez, zenbaitetan ez da halakorik gertatzen oinezko batzuk bidean sartzen direlako, edota zenbait txirrindulari edozein modutara joaten direlako: eskuak poltsikoan, zigi-zaga eginenez, kontrako norabidean... Egoera edozein dela ere, ezinbestekoa da guztiok trafiko-arauak errespetatzea.

Hirugarrena: bidegorrian mantenu-lanak egin behar dira. Adibidez, San Frantziskoko bidegorria zuloz josia zegoen. Duela gutxi konpondu dute. Eskerrak! Orain N-I errepidea dirudi: leun-leun, xamur-xamur ibil zaitzeko bertatik; seinaleak eta marrak argi eta garbi ikusten dira. Baina, zoritxarrez, ez da gauza bera gertatzen bizikleta-bide guztietan: bigarren mailakoetan, bidegorri komarkaletan, zorua apurtuta eta hosto edo zuhaitz adaxkaz josia egoten da; margo lanak falta

Tolosako mugikortasuna hobetzeko eta bidegorri seguruak eta erosoak egiteko, udalari eskatuko nioke herriko bizikleta-bide guztiak lotzea, bai erdigunearekin baita herriko auzo guztiekin ere

bat-batean eten egiten da, Santa Klara zubira iristen, eta ez dago argi nondik jarraitu behar dugun: errepidetik edo Santa Klarako zubitik. Errepidetik joanez gero, arriskutsua izan liteke, batez ere haurrentzat. Nahiz eta herri osoan bizikleten lehentasuna adierazten duten seinaleak egon eta abiadura orduko 30 kilometroan mugatu, horrek ez du bermatzen bizikletan joateko bide seguruena errepidea denik.

Bigarrena: espaloietan edo zoruan margotuta dauden bidegorriak arriskutsuak dira, oinezkoek eta txirrin-

dira. Horrek arriskutsu egiten du bertatik ibiltzea.

Tolosako mugikortasuna hobetzeko eta bidegorri seguruak eta erosoak egiteko, udalari eskatuko nioke herriko bizikleta-bide guztiak lotzea, bai erdigunearekin baita herriko auzo guztiekin ere. Mantenu-lanak ere bermatu beharko lituzke. Eta bidegorrien erabiltzaileei beste hau erregutuko nieke: guztiok jakin eta errespetatu behar ditugu bidegorriko arauak, bai txirrindulariok, baita oinezkoek ere. Bide batez, iradokizun bat: zergatik ez argitaratu herritarrontzat bidegorriak egoki erabiltzeko gida xume bat?

HOTEL AIRE DE BARDENAS



irabazlea

Bi pertsonarentzat bi gaueko egonaldia Aire de Bardenas hoteleko suite batean. Gelak patio pribatua eta kanpoko bainuontzia ditu.

(Erreserba hotelean duten erabilgarritasunaren arabera izango da)

• Gurutze Zubeldia (Tolosa)

Ataria jarriko da harremanetan



HEMEN ZURE IRAGARKIA JOAN DAITEKE

publi@ataria.eus
661 678 818



Gure Txokoa

e k i m e n a

Osasun krisiak gogor jo du eta oraindik ere asko falta da suspertzeko. Aurtengo uda berezia izango da oso, eta berezitasun hori, halabeharrez, kulturgileek jasango dute gehien. Herri eta auzoetako festarik ez da egingo eta hortaz, kultur ekitaldiak nabarmen jaitsiko dira. Beraientzat garai oso zailak datoz eta hori kontuan izanik, plazaratzeko beste modu bat ematea erabaki dugu **TOLOSALDEKO ATARIAN**.

Hori da *Gure Txokoa* ekimena, kulturari eta kulturgileei bultzada emateko sortutako ekimena. Eskualdeko kulturgileen tarte izango da eta abuztuan bideoak zabalduko ditugu, 10:00etan, *ataria.eus*-en eta bere sare sozialetan.

Beraien abestiak, bideoklipak, bertsoak eta abarrek lekua izango dute gure txoko honetan. Herri eta auzoetan izango ez dugun hori gurean izatea da asmoa eta abuztuan ere kulturaz goatzeko leiho bat izatea.

AGENDA

ZINEMA KALEAN

BALLERINA

Uztailak 24, ostirala (19:00).

**Arroako plaza,
Amasa-Villabona.**

ZIPI&ZAPE ETA KANIKEN KLUBA

Uztailak 24, ostirala (22:15).

Ziminterioa, Lizartza.

GLADIATOR

Uztailak 25, larunbata (22:00).

Zezen plaza, Tolosa.

LUIS ETA ESTRALURTARRAK

Uztailak 26, igandea (19:00).

**Errebote plaza,
Amasa-Villabona.**

MASTER AND COMMANDER

Uztailak 26, igandea (22:00).

Zezen plaza, Tolosa.

AGUR ETXEBESTE

Uztailak 27, astelehena (22:00).

Zezen plaza, Tolosa.

LO DEJO CUANDO QUIERA

Uztailak 31, ostirala (22:30).

**Errebote plaza,
Amasa-Villabona.**



OSTIRALA UZTAILAK 24

ALKIZA

KOMIKIGINTZA TAILERRA

17:00. Iñaki Martiarena *Mattin* komikigileak komikigintza lantegia eskainiko du. Ikastaroan parte hartzeko ezinbestekoa da aldez aurretik izena ematea. Zazpi urte-tik aurrerako alkizarrei eskainita dago. Izena emateko: kultura@alkiza.eus edo 688 604 466.

TOLOSA

ELKARTASUN KARABANA

17:00-20:00. Tolosaldea Sahara-ekin elkartaren elkartasun karabana. Saharara bidaltzeko materiala bilduko dute Trianguloa plazan. Batez ere, ikas-materiala lortzen saiatuko dira eta baita osasun arloko materiala ere: maskarak, gel hidroalkoholikoak, eskularruak eta pardelak. Gainera, informazioa helarazteko erakus-keta txiki bat jarriko dute.

KONTZERTUA

20:00. Tolosako Udal Musika Bandaren kontzertua, Plaza Zaharrean. *Irakurri Ion Altunaren elkarrizketa 26-28 orrietan.*



LARUNBATA UZTAILAK 25

AMASA-VILLABONA

SANTIO EGUNA

12:00. Haurrentzat kale antzerkia

eskainiko da. *Kontu kantari 2, mendian ibiltari* ikuskizuna. Ikastolan.

19:30. AMAK taldearen kontzertua. Arroako plazan, baina eguraldi txarra eginez gero, Ikastolan.

00:00. Helduentzako kale antzerkia. *Tonbola* ikuskizuna. Erreboteko plazan, baina eguraldi txarra eginez gero Bearzana frontoian.

LIZARTZA

KONTZERTUA

20:00. Iker Lauroba & Beste Ur-taroak. Ikusleak lurrean eserita kokatuko dira. Medikue etxe aurrean.

IGANDEA UZTAILAK 26

ALTZO

KONTZERTUA

12:00. Altzoko koruak antolatuta, KEA ahots taldearen kontzertua: *Euskal musika a capella*. Gehienez 100 pertsona sartu ahal izango dira. Sarrera doakoa da baina gonbidapenak aldez aurretik eskuratu beharko dira. Uztailaren 22tik hasita, ostatuan hartu ahal izango dira (bi gonbidapen gehienez, pertsonako). Maskara kendu gabe egon beharko dute entzuleek.

AMEZKETA

BISITA GIDATUA

12:00 / 16:00. Amezketa herriaren bisita gidatuak. Parte hartu nahi duenak izena eman beharko du www.amezketa.eus webgunean. Igandero izango dira abuztuaren 30a bitarte. Igandero bi saio eskainiko dituzte, 12:00etan eta 16:00etan, elizaren alboko aparkalekutik hasita. Agurtzane Garmendia herritarrak izango du igandero bisita gidatuak egiteko ardura.

OSTEGUNA UZTAILAK 30

ALTZO

UDA GIRO

12:00. Loatzoko trikitilariak herrian zehar.

19:00. *Errimak bi oinetan* dantza ikuskizuna.

TOLOSA

EMANALDIA HAURRENTZAT

19:00. Miru-ren emanaldia haurrentzat. *Badakizu eserita ere dantzatu daitekeela?*, Zerkausan.

KONTZERTUA

20:00. Txaston taldearen kontzertua, Plaza Berrian.

OSTIRALA UZTAILAK 31

ALTZO

SAN INAZIO EGUNA

Goiz eresia herriko txistulariekin.

19:00. Bertso jaialdia. Antoni Egaña, Uxue Alberdi, Aitor Mendiluze, Julio Soto, Nerea Elustondo eta Eli Pagola. Gai jartzailea: Manu Olano.

TOLOSA

I. EUSKAL BINAKAKO

PENTATLOIA

11:00. Harria: 40 jasoaldi 100 kg.ko bolari. Gizon-proba: 4 plaza. Aizkora: 4 kanaerdiko. Txingak: 8 plaza. Korrika: 4 kilometro. J. Kañameres eta X. Urrutia, I. Errazkin eta A. Mugerza, I. Txapartegi eta J. Otaegi, X. Arria eta A. Izeta VI, X. Zaldúa eta I. Zelai V, O. Drame eta B. Amade bikoteak, zezen plazan.

LARUNBATA ABUZTUAK 1

ALTZO

UDA GIRO

12:30. Artea dantza taldea. Sarrera mugatua izango da, aldeztu aurretik jakinaraziko da sarrerak non eta nola eskuratu.

ASTELEHENA ABUZTUAK 3

LARRAUL

SAN ESTEBAN EGUNA

18:30. Bertso saioa egingo dute plazan (eguraldi txarrarekin frontoian). Maialen Lujanbio, Onintza Enbeita, Iker Zubeldia eta Haritz Mujikaren bertsoez gozatzeko aukera izango da.

ASTEARTEA ABUZTUAK 4

TOLOSA

KONTZERTUA

20:00. Lucia Gomez eta Alize Mendizabalen kontzertua Hamabostaldi Musikalaren barruan. Santa Maria elizan.

OSTIRALA ABUZTUAK 7

TOLOSA

KONTZERTUA

20:00. KEA ahots taldearen kontzertua, Hamabostaldi Kulturalaren barruan. San Frantzisko elizan.

OSTIRALA ABUZTUAK 28

TOLOSA

IKUSKIZUNA

18:00. Dantzpoint, *chill out* berezia DJarekin, Zumardia Txikian.

ERRETRATU NOMADA



NOMAD STUDIO ART

Altzoko Uda Giro egitarauaren barruan, Nomad Studio Art, Erretratu Nomada.

Nomad Studio Art-eko Eli Garmendia eta Carlos Pericas argazkilariek bisita egingo diote Altzori autokarabanan, herritar bakoitzari erretratu bana egiteko intentzioarekin. Parte hartzaile bakoitzari erretratu profesional bat oparituko zaio.

Abuztuak 27-31.
Altzon.



OHARRA. Aldizkaria inprentara bidaltzerako indarrean zegoen eskualdeko agenda da honakoa. Jakina denez COVID-19ak uneen uneko aldaketak sortu ditzake.

«Dantzatzeko eta abesteko piezak jo izan ditugu, eta erreperitorioaren estiloa mantendu egingo dugu»

ION ALTUNA

TOLOSAKO UDAL MUSIKARI BANDA KO KIDEA

Doinu dantzagarriak zein abestekoak entzuteko aukera izango da, gaur, 20:00etan, Plaza Zaharrean. Aurten, oholtza gainean aritu beharrean lurraren mailan eskainiko du kontzertua Tolosako Udal Musikari bandak, eta publikoa ere aulkietan eserita egongo da.

Irati Saizar Artola

Konfinamendu osteko lehen kontzertua eta ikasturteko azkena eskaintzekoak dira, gaur, Tolosako Udal Musikari Bandako kideak. Segurtasun neurriak hartuta entsegu batzuk egiteko aukera izan dutela azaldu du Ion Altuna (Tolosa, 1987) bandako kideak. Aurten, gainera, zuzendaritzan egotea egokitu zaio eta guztia behar bezala kudeatzen aritu dira, berriro ere martxari ekin eta ikasturtea musika joaz amaitzeko.

Nola eragin dio pandemiak Tolosako Udal Musika Bandari?

Leku publikoak ixteko erabakia hartu zenean, batzordeko kideak biltzen hasi ginen egoera baloratzeko. Osasun alorrean dabilen bandako kide bat dugu, eta hark esan zigun, gauzak nola zeuden ikusita ego-

kiena udalarekin kontaktuan jartzea izango zela. Gauzak itsusi jartzen hasi zirenez, gure aktibitatea geratzea erabaki genuen, bai entseguak eta baita kontzertuak ere.

Konfinamenduan egon zareten bitartean nola moldatu zarete musika jotzen jarraitzeko?

Ez genekien zenbat denbora iraungo zuen kontuak. Eta hasiera batean, talde bezala bideo bat muntatu genuen, ikusteko horrelakoetan ere taldea batera gaudela eta gauzak egiteko prest geundela. Gero, talde bezala beharrean, bandako hainbat kidek bai egin dituztela bideoak eta, aktibo segitzeko. Eta gainerakoak bakarka aritu gara etxean, bandako gauzak ikasi eta errepasatzen, forman mantentzeko.



Nola kudeatu duzue egoera?

Deseskalatze faseak etorri zirenean, gure aldetik hizketan hasi ginen, edozein momentutan lanean has-tea tokatzen bazitzaigun ere, prestatuta egon beharko genuelako. Inguruko beste bandekin jarri ginen kontaktuan, ikusteko nola hasi ziren haiek ere lanean. Bartzordeko kideak elkartu eta protokolo bat prestatzea erabaki genuen: entsegurako gelak zer baldintza bete behar zituen, musikariok zer neurri hartu behar genituen bai entseguetan eta baita kontzertuetan ere... Horretarako, prebentzio enpresa bat kontratatu

«Entseguetara goazenean, norberak bere aulkia eta bere atrila ditu bakoitzaren izenarekin»

genuen, azterketa bat egin zezan, eta ondoren, osatutako plan hori Tolosako Udalean aurkeztu genuen, haiek onartu zezaten, haiekin baitaukagu kontratua sinatuta. Udalak protokolo hori onartu zuenean entseguetara hasteko aukera izan genuen.

Eta nola hasi zarete entseguetara?

Normalean, musika eskolako areto nagusian egiten ditugu entseguak, eta zein aukera egon zitezkeen ikusi genuen bertan aritzeko. Egokitu egin behar izan dugu aretoa, izan ere, 60 musikari inguru gara bandan, eta bi metroko distantzia mantendu beharra genuen. Distantzia horiek hartuta, neurriak bete genitzakeela ikusi genuen eta prebentzio enpresak ere ikusi zuen posible zela. Ate batetik sartu eta bestetik atera behar izaten gara, sartzerakoan garbitasunerako produktuak erabiltzen ditugu, eta bakoitzak bere atrila eta bere aulkia du bakoitzaren izenarekin. Lekura iritsi eta instrumentua muntatu arte maskarare-

kin jantzita egon behar izaten dugu.

Eta ondoren, jotzeko garaian, kendu egiten dugu.

Gaur bertan kontzertua eskainiko duzue Plaza Zaharrean, azkenean.

Zer entzun ahalko da?

Data hauen bueltan, Gau Giroko kontzertua eskaini ohi dugu urtero. Dantzatze edo abesteko piezak jo izan ditugu beti. Aurten, egoera berezia



denez eta hartu behar ditugun neurriak direla eta, arratsaldean izango da kontzertua. Entseguetan bezala kontzertuan ere distantziak mantendu beharko ditugu. Baina erreperitorioaren estiloa mantentzearen aldekoak gara; hala ere, pieza berriak izango ditugu, besteak beste, Miguel Rios, Nino Bravo, Alaska edota Ed Sheeranen abestiak. Estilo aldetik baino formatu aldetik izango da bereziagoa, izan ere, ez dugu oholtza gainean joko, lurrean ariko gara aulkietan eserita. Dantza askorik ere ezingo

du egin publikoak, izan ere, haiek ere aulkietan eserita egon beharko dute.

«Pieza berriak ere joko ditugu gaur: Miguel Rios, Nino Bravo, Alaska edota Ed Sheeranenak, adibidez»

Orain, uda nola datorkizue?

Kontzertu honekin amaitzen dugu, normalean, ikasturtea. Abuztua jai hartuko dugu eta irailean hasiko gara berriro ere entseguekin. Oraintxe bertan ez dakigu irailetik aurrera hasteko nolako aukera izango dugun. Hemenetik aurrera gauzak nola datozen aztertuta eta udalarekin hitzartuta daukagun agenda hori nola bete edo moldatu ikusi beharko dugu.

MER KE AL DIA

Kontsultatu optikan kanpainaren ezaugarriak.



EZ EGIN UKO EZERI
AUKERATU MÓ

San Frantzisko, 23
Tel.: 943 69 84 70
TOLOSA

MULTIÓPTICAS




www.multipopticas.com



Nafarroa etorb.
13 behea. **TOLOSA**
670 417 922
943 65 0313

 **gorriti | martínez**



San Frantzisko pasealekua 14, Tolosa
Tel: 943 650 192
www.gorritimartinez.com



ataria

www.ataria.eus • 107.6 fm

Abuztuan ere jarraitu eskualdeko
albisteak ataria.eus webgunean!





ANOETA ITURTXULO

28 ETXEBIZITZA, GARAJE ETA TRASTELEKU
2 ETA 3 LOGELAKO ETXEBIZITZA PAREGABEAK
GARAI HAUETAN HAINBESTE ESKERTZEN DIREN TERRAZA HANDIEKIN!
BETE ZURE AMETSA ETA INFORMA ZAITEZ KONPROMEZURIK GABE!



Audi Enpresan

ZERO ISURI IZANGO DUEN
ETORKIZUN BATEN ALDE
EGITEN DUGU LAN

ARRASTORIK
EZ UZTEKO
BERRITZEN DUGU

Gaztelugatxe, Bizkaia



Audi A3 Sportback 40 e-tron

Gure esfortzu guztia jartzen dugu zero isuri izango duen etorkizuna eraikitzeko. Entxufatu daitekeen Audi teknologia hibridoa bezalako teknologiekin berritzen dugu; motor elektrikoa eta gasolinakoa bateratzen ditu. 40 kilometro arteko %100eko autonomia elektrikoa du, gidatze eraginkor eta arduratsua eskainiz.

Entxufatu daitekeen Audi TFSI teknologia hibridoa honako modeloetan dago:

Audi Q5 TFSIe, Audi Q7 TFSIe, Audi A3 Sportback 40 e-tron, Audi A6 TFSIe, Audi A7 Sportback TFSIe eta Audi A8 TFSIe.
audi.es/a3etron



Autowag Tolosa

Usabal industrialdea, z/g
20400 Tolosa
Tel. 943 67 35 81

150 kWko (204 CV) Audi A3 Sportback 40 e-tron. CO2 isuri konbinatuak: 43tik 46 g/km-ra. (NEDC; 43tik 46 g/km-ra). Kontsumo konbinatua (erregaia): 1,9-2 l / 100 km.